

Don IÑAKI TXINTXURRETA PERDIGUERO Jn.

Donostiako Udaleko Bitarteko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General en funciones del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2023ko otsailaren 21ean izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, gehiengoz:

Erakunde Adierazpena, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Euskararen aurkako eraso judizialaren ingurukoa.

“2023. urtea hasi berritan, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak euskararen aurkako epai bat eman du berriz ere. Zehazki, Barakaldoko Udalaren erabaki bat baliogabetu dute CCOO sindikatuaren eskariz, eta azpikontratutako zerbitzuetan gutxieneko euskara maila eskatzearen aurka agertu dira epaileak. Erabaki dute euskara ezin dela langileentzako betekizun gisa ezarri udalerrri horretako kultur zerbitzuez arduratzeko enpresa bat kontratazeko lehiaketan.

Hau ez da EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak emaniko tankera honetako lehen epaia. Lehenago ere, euskara sustatzeko udal administrazioen ekimenak baliogabetu izan dituzte epaitegiek: besteak beste, 2018an, haurrei zuzendutako Lasarte-Oriako Udalaren ekintza kulturalak diruz laguntzeko ordenantza; 2021ean, Irungo Udalaren udaltzaingo prozesuan ezarritako hizkuntza eskakizunak; lantalde organikoko lanpostu guztietan euskara jakitea meritua izateko Atarrabiako Udalak hartutako erabakia; 2022an, Laudioko Udalaren langile baten hizkuntza eskakizunaren erabakia...

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 21 de febrero de 2023, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

Declaración Institucional, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la agresión judicial al euskera.

“Recién iniciado el año 2023, el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha vuelto a dictar una sentencia contraria al euskera. En concreto, han anulado un acuerdo del Ayuntamiento de Barakaldo a petición del sindicato CCOO y los jueces se han opuesto a exigir un nivel mínimo de euskera en los servicios subcontratados. Consideran que el euskera no puede establecerse como requisito para el personal en el concurso para la contratación de una empresa encargada de los servicios culturales de ese municipio.

Esta no es la primera sentencia de este tipo dictada por el TSJPV. Con anterioridad, los tribunales anularon también iniciativas de las administraciones municipales para la promoción del euskera: entre otras, en 2018, la ordenanza para subvencionar las acciones culturales del Ayuntamiento de Lasarte-Oria destinadas a la infancia; en 2021, los perfiles lingüísticos establecidos en el proceso de Policía Local del Ayuntamiento de Irún; el acuerdo del Ayuntamiento de Villaba para que el conocimiento del euskera sea mérito en todos los puestos de trabajo del equipo orgánico; en 2022, la decisión relativa al perfil lingüístico de una persona trabajadora del Ayuntamiento de Llodio...



Euskararen aurkako epaiak izan dira, eta hizkuntza-politikaren judizializazioaren baitan ulertu beharreko erabakiak. Izan ere, gaur egun ezarrita dagoen ofizialtasunaren eta ofizialtasunaren ondorio juridikoen irakurketa are murriztagoa egiten ari dira epaien zein jurisprudentiaren bidez. Bide honetatik, euskaldunon eskubideak are gehiago murriztu nahi dituzte ofizialtasunaren irakurketa murriztago baten bidez. Herriarrek udal zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko eskubidea dute, eta erakunde publikoei, guztiei, baita judizialei ere, eskubide horren bermatzaile izatea dagokie.

Baina epai hau ez da euskararen aurkakoa soilik: EAEko araudiaren eta udal autonomiaren aurkakoa ere bada. Batetik, 2/2016 Euskadiko Tokiko Erakundearen Legea urratzen du. Lege hark udaloi hizkuntza politikan erabakiak hartzeko eskumenak ematen dizkigu, eta legea garatzen duen 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koak, EAEko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, oso argi uzten ditu euskara lehenesteko bideak, arrazoi askorengatik. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Tokiko Erakundearen Legeak hizkuntza politikan udalen eskumenak argi zehazten ditu, eta 2019ko dekretuak ere udalei euskara lehenesteko beharra ezartzen die, hizkuntzaren normalizazioan urratsak emateko.

Hori dela eta,

1.- Donostiako Udalaren osoko bilkurak epaitegiek abiatu duten hizkuntza-politikaren judizializazioa eta euskararen aurka ematen ari diren epaiak salatzen ditu, azkena EAEko Auzitegi Nagusiak Barakaldoko Udalaren aurka emandakoa.

Han sido sentencias contrarias al euskera y decisiones que se deben situar en el marco de la judicialización de la política lingüística. Porque, de hecho, a través de sentencias y jurisprudencia, están haciendo una lectura aún más reducida de las consecuencias jurídicas de la oficialidad y de la oficialidad actualmente establecida. Por esta vía quieren recortar aún más los derechos de la ciudadanía vasca a través de una lectura más reducida de la oficialidad. La ciudadanía vasca tiene derecho a recibir los servicios públicos municipales en euskera y a las instituciones públicas, todas ellas, incluidas las judiciales, les corresponde ser garantes de ese derecho.

Pero esta sentencia no sólo es contraria al euskera: Es también contraria a la normativa vasca y a la autonomía municipal. Por un lado, vulnera la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi. Dicha Ley nos otorga a los municipios competencias para la toma de decisiones en materia de política lingüística, y el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi, que desarrolla la Ley, deja muy claro, por numerosos motivos, las vías de priorización del euskera. En Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, la Ley de Instituciones Locales define con claridad las competencias municipales en materia de política lingüística y el decreto de 2019 impone también a los ayuntamientos la necesidad de priorizar el euskera para avanzar en la normalización lingüística.

Por ello,

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián denuncia la judicialización de la política lingüística puesta en marcha por los tribunales y las sentencias que se están dictando contra el euskera, la última dictada por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco contra el Ayuntamiento de Barakaldo.



2.- Donostiako Udalaren osoko bilkurak Euskal Herriko administrazioei, epaitegiei eta eragile politiko, sindikal eta sozialei herritarren hizkuntza eskubideak berma ditzatela eta euskararen sustapenaren alde egin dezatela eskatzen die.

3.- Donostiako Udalaren osoko bilkurak, legedia betez, ondorengo konpromisoak hartzen ditu:

- Udal zerbitzuetan herritarrei lehen hitza euskaraz egitea
- Zerbitzu publiko guztiak euskaraz eskaintzea.
- Udal funtzionamendu osoa EAEko bi hizkuntza ofizialeetan bermatzeko urratsak emateko plana gauzatzea".
=====

2.- El Pleno del Ayuntamiento San Sebastián insta a las administraciones, tribunales y agentes políticos, sindicales y sociales del País Vasco a garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía y a favorecer la promoción del euskera.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián, en cumplimiento de la legislación, se compromete a:

- Ofrecer atención en euskera a la ciudadanía en los servicios municipales.
- Ofrecer todos los servicios públicos en euskera.
- Ejecución del plan para garantizar todo el funcionamiento municipal en las dos lenguas oficiales de la CAPV".
=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2023ko otsailaren 27an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 27 de febrero de 2023.

BITARTEKO IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL EN FUNCIONES

Iñaki TXINTXURRETA PERDIGUERO

ALKATEAK O. E. -
V.º B.º DEL ALCALDE: